

MULTITUDEAREN UTOPIA INPERIO DISTOPIKOAREN ISPILU. MICHAEL HARDTEN ETA ANTONIO NEGRIREN «EMPIRE» BILDUMAREN ANALISIA UTOPIEI BURUZKO IKERKETEN IKUSPEGITIK

Tesiaren egilea: Alba Garmendia Castaños

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Filosofia Saila

Tesi-zuzendaria: Iñigo Galzacorta Muñoz

Tesiaren laburpena:

Michael Hardten eta Antonio Negriren *Empire* bilduma utopiei buruzko ikerketen ikuspegitik aztertzen da doktorego-tesian. Horretarako, utopiaren marko teoriko bat zehaztu da lehenengo atalean, gizarte utopikoen aberastasuna bi kontzeptutara eta bi garaitara zedarriz, bereziki: testuinguru modernoari erantzuten dion utopia klasikoa (lehenengo kapitulua) eta aro postmodernoan sortutako utopia garaikidea (bigarren kapitulua) dira marko teorikoaren bi ardatz nagusiak.

Bigarren atalean, marko teorikoak Hardten eta Negriren *Empire* bildumarekin duen harremanari erreparatu zaio. Lehenik eta behin, bilduman «utopia» kontzeptua noiz eta nola erabiltzen den azaldu da (hirugarren kapitulua), ikus dadin Hardtek eta Negrik euren ekarpena utopikoa denik ukatzen dutenean utopiaren kontzeptu klasiko-modernoaren dutela gogoan (ez garaikidea).

Laugarren kapituluan, utopiaren markora ekarri da Hardtek eta Negrik Modernitatea eta Inperioa ulertzeko duten modua. Bertan erakutsi da, batetik, Modernitateari egiten dioten irakurketa (bereziki, nazio-estatuaren kontzeptualizazioa eta potentzial iraultzailea gorde dezakeen soberakin historikoa) iruditeria utopikoarekin osa daitekeela. Bestetik, Inperioa legitimatzen duen diskurtso utopiko ezkutua (sinesberatasun utopikoa) azaldu da, baita Hardtek eta Negrik Inperioari egiten dioten kritika teoria distopiko sozializat ere har daitekeela. Hortik ondorioztatu da Inperioaren analisia utopiei buruzko ikerketen ikuspegitik egiteak balio dezakeela egungo diskurtso utopiko-distopiko ezkutua ikusteko eta gizarte garaikideak distantziatik eta kritikoki aztertzeko.

Bosgarren eta azken kapituluan erakutsi da Hardten eta Negriren multitudinearen proposamena utopia garaikidetzat har daitekeela. Ernst Blochek eta utopismo kritikoa garatu zuten utopiaren kontzeptuaren parekoa litzateke multitudinearen

utopia, orduan: utopia garaikide bat, eta ez utopia klasiko-modernoaren pareko gizarte perfektua, gatazkarik gabea eta behin betiko desiragarria.

Hori erakusteko, *Empire* bilduman multitudearen kontzeptua eta multitudearen gizartea zer diren azaldu ondoren, Hardten eta Negriren kontzeptuek utopia garaikidearekin izan ditzaketen loturak erakutsi dira: (1) Ontologiari eta historiaren filosofiari dagokienez, utopia blochearra egon daiteke Hardten eta Negriren pentsamenduaren atzean. (2) Subjektuari dagokionez, utopia garaikidearekin lotzen den ziborgak irudikatzen du ondoen multitudearen subjektu iraultzailea. (3) Multitudearen gizarteari dagokionez, azkenik, gizarte desiragarriagoa irudikatzen eta eraikitzen moduak utopismo kritikoaren ezaugarriak partekatzen dituela erakutsi da: gatazka kontuan hartzen duten gizarteak izan ohi dira, eta bidea dutenak helburu.

Azken puntuan ondorioztatu da Inperioaren eta multitudearen teoriak distopikotzat eta utopikotzat hartzeak ispilu baten aurrean jartzen dutela utopia-hartzailea. Inperioaren distopiak eta multitudearen utopiak errealitatearen isla arrarotu bat eskaintzen dute, eta islak utopia eta distopia errealitatearekin elkarrizketan jartzeko eta azken horretan eragiteko bidea ireki dezake.